

BASABURUA

181. ALEA - 2025EKO IRAILA

BASABURUKO UDAL BULETINA

ERREDAKZIOA: AMETZA




www.basaburua.eus
udala@basaburua.eus
948 50 30 35

ONGIZATEA HELBURU

Adinekoei zuzendutako ohiko ikastaroekin batera, berrikuntzak datoz. Haien artean, Txokolateroren etxe zaharberrituan izanen direnak. Alde batetik, jarduera fisikoa eta memoria uztartzeko ikastaroa. 60 urtetik gorakoei zuzendua dago, eta gorputza eta burua aldi berean estimulatzeko helburua izanen du. Urriko eta azaroko astelehen eta asteazkenetan, 11:30etatik 12:30ak arte. Sasurain etxean ere, urrian, bestalde, sakelako telefonoa erabiltzen ikasteko tailerra izanen da. 16 orduko ikastaro honetan Smartphona ulertu eta beldurrak uxatzea da helburua, ikasitakoa praktikan jarritz. Astearteetan eta ostegunetan, 16:30etatik 19:00ak bitartean. Izena emateko deitu 948 50 30 35 iralaren 27a baino lehen.

OBJETIVO. BIENESTAR

Con los talleres habituales para personas mayores, vienen novedades. Por un lado, los lunes y miércoles de octubre y noviembre, entre las 11:30 y las 12:30 se impartirá un curso de memoria y actividades físicas. Estarán dirigidas a mayores de 60 años con el objetivo de estimular mente y cuerpo al mismo tiempo. Además, en octubre también se impartirá un taller para aprender a utilizar el teléfono móvil. En un total de 16 horas se ayudará a entender el Smartphone y quitarle el miedo, practicando. Martes y jueves, de 16:30 a 19:00. Ambos serán en la recién reformada casa de Txokolatero y para apuntarse hay que llamar al 948 50 30 35 antes del 27 de septiembre.



'PUNPAIREZ' IKUSKIZUNA, BASABURUAN

"Late night show" edo gaueko elkarrizketa programen eredua hartzen duen ikuskizuna da, euskaraz. Inprobisazioa ardatz hartuta, umorea, elkarrizketak, musika eta beste hainbat osagai izaten ditu. Zuzeneko ikuskizuna da, ikuslegoaren aurrean egiten dena eta herriz herri mugitzen ari da hainbat areto eta oholtzetatik Oskarbi argitaletxearen laguntzarekin. Punpairez Antonio Iriarte, Maria Blanco eta Xabin Fernandez umoregileek sortu zuten, hiruotako bik bakarriketa saio batean topo egin ondoren; eta, aurtengo udaberrian eskaini zuten lehenengo saioa. Hiruko taldeari June Gabarain batu zaie, Antonio Iriarte bezala, Skabideaneko musikaria; Saio bakoitzean, gainera, gonbidatuak eta elkarrizketak izaten dituzte, eta baita haiek sortutako pertsonaiak ere. Antonio Iriarte, sortzaileetako batek esan digunez: "Ongi pasatzea eta jendeak gurekin ongi pasatzea da helburua", eta, horrelako ereduak euskaraz ere sortzen ari diren honetan freskotasuna eta zuzentasun politikotik askeago dagoen eduki lotsagabea eskaini nahi dute. Urriaren 31n iritsiko da, Luzia Goñi Kultur Etxera (Aizarotz).



EL ESPECTÁCULO 'PUNPAIREZ' EN BASABURUA

Es un espectáculo en euskara que sigue el formato de "Late night show" o programa nocturno de entrevistas. Con la improvisación como base, mezcla humor, música y otros ingredientes. Punpairez es un espectáculo en directo que se hace ante el público y que está moviéndose de teatro en teatro y de sala en sala con la ayuda de la editorial Oskarbi. Ha nacido de la mano de los humoristas Antonio Iriarte, Maria Blanco y Xabin Fernandez, después de que coincidieran en una sesión de monólogos. Esta primavera han ofrecido su primer espectáculo. Al equipo se une también la música June Gabarain, como Antonio Iriarte, miembro del grupo de música Skabidean. En cada bolo, además, cuentan con invitadas, entrevistas y personajes de invención propia, entre otras. "Pasarlo bien y que la gente lo pase bien cono nosotras, ese es el ojetivo", según nos ha dicho Antonio Iriarte. En un momento en que están surgiendo nuevos formatos también en euskara, quieren ofrecer contenidos frescos que con libertad y sin vergonzonería escapen a la corrección política. Llegará a la Casa de Cultura Luzia Goñi (Aizarotz), el 31 de octubre.

EGUNEKO ZENTROA UDABERRIAN EGON LITEKE MARTXAN

Txokolateroren etxeko obrak behin amaituta, Basaburuko Udalak **Iniciativas para la Tercera Edad S.L.** enpresa kontratatu du eguneko zentroaren kudeaketa martxan jartzeko behar diren lanak egiteko. Enpresak proiektua aztertu eta hura abian jartzeko zer eredu eta ezaugarriak diren proposenak ikusiko du. Egin beharko dituen lanen artean: plan ekonomikoa, tarifak eta diru kontuak finkatzeko; kudeaketa eredu ezberdinak aztertu eta egokiena ezartzeko prozesua aurrera eraman; eta, zentroaren antolaketa azpiegitura zehaztu. Hauek dira garatu beharko dituzten gaietako batzuk: langileen ezaugarriak (titulazioa, ratioak eta lanen banaketa), hautaketa probak eta kontratazio oinarriak, zentroaren erabiltzaileen profila eta aurreikusten den plaza kopurua, garatuko diren programak eta jarduera plana, garraio eredu eta zentroan garatuko diren beste zerbitzuen oinarriak. Enpresak 9 hilabeteko epea du honetarako.

Udalak, gainera, ate irekien jardunaldi berri bat egin nahi du zentroan lan egiteko profila izan dezaketen eskualdeko herritarrei zuzendua. Izan ere, eguneko zentroan lan eginen dutenak bertakoak izatea bultzatu nahi du.



EL CENTRO DE DÍA PODRÍA ESTAR EN MARCHA EN PRIMAVERA

Una vez terminadas las obras de la casa de Txokolatero, el Ayuntamiento de Basaburua ha contratado a la empresa **Iniciativas para la Tercera Edad S.L.** para que complete los trabajos necesarios para poner en marcha la gestión del centro de día. La empresa deberá estudiar el proyecto para ver qué modelo y características son las más apropiadas para su puesta en marcha. Entre los trabajos que tiene que realizar: el plan económico para definir las tarifas y los asuntos de financiación; valorar las diferentes alternativas de gestión y completar el proceso para implantar la más apropiada; y concretar la estructura organizativa del centro. Estos son algunos de los asuntos que tendrán que desarrollar: características del personal (titulación, ratios y distribución de funciones), la realización de pruebas de acceso y de las bases de contratación, el perfil de las personas atendidas, la previsión de plazas, planes de actuación en el que consten los programas de atención a desarrollar, el modelo de servicio de transporte y otros servicios a desarrollar en el centro. La empresa tiene un plazo de 9 meses de ejecución.

El Ayuntamiento, además, quiere realizar una nueva jornada de puertas abiertas dirigida a aquellas personas con perfil profesional interesante para el centro de día. Y es que se quiere impulsar que los y las trabajadoras del centro sean de la zona.

UDAL ORDENAGAILUETAN BERRIKUNTZAK

Udaletxeko ordenagailuen sistema operatiboa berritzea ezinbestekoa zen, Windows 10 sistemaren euskarria amaitu baitu konpainiak eta 11. bertsiora salto egin behar da, derrigorrez, eguneraketak izaten jarraitzeko, urriaren 14a baino lehen. Horrela, Udalak aldaketa egin du dagoeneko bere ordenagailuetan.



RENOVACIÓN EN LOS ORDENADORES

El Ayuntamiento ha renovado los ordenadores para poder actualizar el sistema operativo. La compañía tecnológica encargada de Windows va a dar por finalizado el soporte de Windows 10 el 14 de octubre, obligando así a hacer la transición a su versión 11 si se quiere seguir actualizando el sistema y poder continuar con el mantenimiento. Así, El Ayuntamiento ya ha hecho el cambio en sus dispositivos.

UDAKO UDAL LANGILEEN LANAK, UGARIAK

Basaburuko Udaleko Lan Babestuko programaren laguntzarekin hiru langile aritu dira, maiatzaren 26tik irailaren 26ra. Udaleko Zerbitzu Anitzetarako langilearekin hainbat lan egin dituzte: eraikinen kanpoaldearen lijatzea eta margotzea, Sasturain etxeko leihoak eta Ttikiena haur-eskola, adibidez; Kiroldegiko, eskola inguruko eta Pasaderetako garbiketa lanak; eta Oihanzabalgo egurraren txikitzea eta pilotzea. Gainera, urtero bezala bidexkak sasiz garbitzeko edo depositoak eta inguruak txukuntzeko ere baliatu da.

LABORES MÚLTIPLES DE LOS TRABAJADORES DE VERANO

Han sido tres personas contratadas con la ayuda del programa de Empleo Social Protegido del Ayuntamiento de Basaburua, desde el 26 de mayo hasta el 26 de septiembre. Y junto al trabajador municipal de Servicios Múltiples, estas han sido algunas de las labores realizadas: el lijado y pintado de varios edificios como las ventanas de la Casa Sasturain o la parte exterior de la Escuela Infantil Ttikiena. Trabajos de limpieza en el entorno del polideportivo y la escuela; Además de partir y apilar la leña de Oihanzabal. También, como cada año, se han desbrozado los caminos y se han acondicionado los depósitos y su entorno.



IRAILA/ SEPTIEMBRE

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

■ BERAMENDIKO PESTAK

● YOGA IKASTAROAREN HASIERA, JAUNTSARATSEN

■ UDABEKO PESTAK

URRIA/ OCTUBRE

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

■ GARTZARONGO PILOTA TXAPELKETA: FINALAURREKOAK

● PUNPAIREZ, KULTUR ETXEAN